

ABA TXIKI

Bizkaia
bizkaibus
Bizkaibusek operara hurbiltzen zaitu
Bizkaibus te acerca a la ópera

2023/2024

19 ABAO TXIKI DENBORALDIA
TEMPORADA DE ABAO TXIKI



I. Casali

El flautista de Hamelin



Urriak/Octubre '23
14, 15, 16

**Eszena-zuzendaritza/
Dirección de escena:**
Txori García Uriz, Ion Barbarin
Ekoizpena/Producción:
Ópera de Cámara de Navarra

Arriaga Antzokiak eta ABAO Bilbao Operak
elkarlanean antolatua / Una colaboración
del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Ópera



ABA | **BILBAO**
OPERA

Laguntzaileak
Colaboradores





Gozatu gure musikaren liluraz	4
Musikari ibiltariak	6
Azter dezagun txirula hurbiletik	8
Ezagut itzazu gainerako pertsonaiak	11
Saguak kantuan!	12
Fitxak	13



Umei zuzendutako testuak handiago idatzirik agertzen dira, ikur honen bidez adierazita.



Helduei zuzendutako testuak ikur honen bidez adierazirik agertzen dira. Informazioa beraiekin nahierara parteka dezakezue.

Iturriak: «Note» ikurra *asol_studiok* eginda, www.flaticon.com; «Rat» ikurra *Iconriverrek* eginda, www.flaticon.com; «Family», «Children», «Party», «Musical Note» ikurrak, www.flaticon.com alokatuak; Bilboko udaletxearen argazkia, es.wikipedia.org alokatuak.



Gozatu gure musikaren liluraz!



Ongi etorri antzokira! Prest zaudete «Hamelingo txirularia» opera ikusteko? Nahi duzue obra honetako abesti alaiak abestu eta dantzatu? Zuretzat adierazitako paragrafoak irakurtzera animatzen bazara, ziur askoz gehiago gozatuko duzula emanaldiaz, ikusten ari zarena berehala ulertuko duzulako. Bazatoz gurekin Hamelin hirian zeharreko ibilaldi honetan?

Gogoratu opera bat ikusiko duzula: musikaren bidez kontatutako istorio



bat... eta ziur ahal bezain laster ezagutu nahi dituzun pertsonaiek abestutako hitzekin! Baina, musikaz hitz egiten hasi aurretik... gogoan duzu jatorrizko ipuina? Ez baduzu ezagutzen, ez da ezer gertatzen, hemen erdia idatzi baitugu, antzerkira nola amaitzen den jakiteko gogoaz poztuko dizulakoan...

«Aspaldi-aspaldi, haranez eta mendiz inguratutako eta ibai batek zeharkatutako Hamelin hiri oparoan, oso gauza bitxia gertatu zen: goiz batean, herritarrak etxetik irten zirenean, milaka sagu ikusi zituzten kaleetan, hara eta hona aletegietako aleak eta despentsetako janaria jaten.

Inork ez zuen ulertzen halako inbasioaren zergatia, eta, are okerrago, inork ez zekien zer egin izurrite kezagarria desagerrarazteko. Akabatzeko ahaleginak egin arren, bazirudien ugaldu egiten ari zirela. Hainbeste sagu zeuden, non kaleek grisez margotuta ziruditen eta katuak eurak ere ihesi zihoazen.

Egoera larria zenez, hiriko gizonak, beren ondasunak eta aberastasuna arriskuan ikusita, udaletxean Kontseilua deitu eta zera erabaki zuten: “Urrezko 100 txanpon emango dizkiogu saguetatik libratzen gaituenari”. Albistea zabaldu eta berehala txirulari altu eta bakarti bat agertu zen, inork ezagutzen ez zuena, eta honela esan zien: “Neuk libratuko zaituztet saguetatik diru horren truke. Gaur gauean, ez da sagurik izango Hamelinen”.

Hamelingo herritarrek ordainsaria agindu ziotenean, txirularia doinu itsaskor bat jotzen hasi zen bere txirulaz herriko kale, plaza eta txokorik ahaztuenetan zehar, eta sagu guztiak beren ezkutalekueetatik ateratzea eta bere atzetik joatea lortu zuen, instrumentuaren soinuak hipnotizatuta baleude bezala.

Eta, horrela, melodia itsaskorra jotzeari utzi gabe ibiliz eta dantzatuz, sagu guztiak hiritik alde egin zuten txirulariaren atzetik. Ibaira iritsi zirenean, saguek musika magiko haren dei indartsua sentitu, eta, bi aldiz pentsatu gabe, beren burua ibaira bota zuten doinuari jarraitu nahian. Erabaki txarra, saguek ez dakitelako igeri egiten; hortaz, korronteak eramanda denak hil ziren itota.

Hamelingo biztanleek, sagu guztiak desagertu zirelako pozarren, egundoko festa ospatu zuten. Hurrengo egunean, udaletxean, txirulariak agindu zioten ordainsaria eskatu zuen: “Hitzeman zenizkidaten urrezko 100 txanponak kobratzera nator” – esan zuen, besterik gabe. Baina Hamelingo agintariak, mehatxua desagertuta zegoenez, iseka eginez eta hitz itsusiak esanez bidali zuten: “Ospa gure hiri oparotik! Edo benetan uste zenuen txirula jotze hutsagatik hainbeste urre ordainduko genuela?”.

Txirulariak ez zuen ezer esan. Udaletxetik irten, eta zerura begiratu zuen. Hodeiak astiro mugitzen ari ziren, mendebaldeko haize leunak bultzatuta, eta txoriek hiriko bizimodua alaitzen zuten, bere onera itzultitako egunerokoa. Orduan, txirularia jaiki, haizearen norabidea egiaztatu, eta txirula jotzen hasi zen...».



Gustatu zaizu istorioa? Puntu interesgarrian geratu da, ezta? Irakurri duzun kontakizuna Grimm anaiek idatzi zuten, argazkian ikusten dituzun bi gizon hauek. Herri askotan ibili ziren eta jende askori entzun zioten beraiei kontatu zizkieten ipuinak kontatzen. Grimm anaiek ipuin horiek idaztea erabaki zuten, urteen poderioz gal ez zitezen, eta haiei esker irakurri ahal izan duzu ipuina. Badakizu zer beste ipuin idatzi zituzten? Ziur bat baino gehiago ezagutzen duzu. Ez bazara gogoratzen, galdetu zure ingurukoei. Gogoratzen lagunduko dizute.



Grimm anaiek, Jacob eta Wilhem, egungo Alemaniako filologoak, XIX. mendearen hasieran beren lurraldeko folkloreko ipuinak eta kondairak ikertzea eta biltzea erabaki zuten ikertzaileak izan ziren. Erromantizismoak ipuinen ahozko tradizioan jarri zuenez arreta, ikerlari asko garai hartan dagoeneko oso ezagunak ziren kontakizunak sistematikoki jasotzen hasi ziren.

Anaien lanaren garrantzia beren bildumaren hedapen zabalean ikus dezakegu gaur egun; izan ere, esan daiteke beren ipuinak Europako mendebaldeko tradizioarekin bat datozela: "El príncipe rana", "Hansel eta Gretel", "Rapunzel", "Rumpeltiltskin", "Loti ederra", "Edurnezuri", "Katu botaduna", "Juan sin miedo", "Bremengo musikariak" edo "El lobo y los siete cabritillos", guztiak ere haiei esker iritsiak gaur egunera.

Grimm anaien ipuin-bilduma nagusia bi liburukitan plazaratu zen, 1812an eta 1815ean, hurrenez hurren, publiko helduarentzat. Indarkeriaz eta krudelkeriaz betetako bertsoiak ziren, beren garaikideak hezteko eta kontzientziatzeko istorio «eredu» gisa balio

baitzuten, hau da, ez ziren haurrentzat. Horren erakusgarri, lehen edizioa filologia-oharrez josita dago, eta uko egin zioten, apropos, ilustrazioz laguntzeari.

Haien anaia Ludwigek erantsi zituen bere ilustrazioak, 1825eko berrargitalpenean, edizio berrikusi eta kondentsatuan -eta eztituan, erantsi behar dugu-, oraingoan bai adin txikiagoko umeentzat. Eta edizio horrekin egin ziren ospetsuak mundu osoan. Bitxikeria bat aipatzearren, gaztelaniazko lehen edizioa 1879koa da, José S. Viedmak itzulia.



Musikari ibiltariak



Badakizu musikari asko herri edo hiri batetik bestera jotzetik eta abestetik bizi direla, ezta? Orain, kontzertu ospetsuak antolatzen dira, entzule asko biltzen dituztenak. Badakizu oso tradizio zaharra dela? Musikari ibiltariak esaten zieten. Musika entzutea oso zaila zen eta

Internetik ez zegoen garaian, ez eta sakelakorik eta CDrik ere, zuzeneko musika entzuteko esperientzia nekez bizi zitekeen, oso gauza zaila zen. Beraz, musikari bat herri edo hiri batera iristen zenean, jendea zitzu bizian joaten zen hari entzutera. Txirularia musikari ibiltari horietako bat zen, eta herriz herri ibiltzen zen bere musika eskaintzen. Animatuko zinateke Hamelinen jotzen duen musika dantzatzera? Egizu klik ➡ [Txirulariaren musika](#)



Grimm anaiek, txirulariari buruzko azken istorioari forma emateko, hainbat kontakizun bildu zituzten, guztiak ere, egileek eta ondorengo adituek egindako ikerketen arabera, istorioa benetan gertatu omen zen gertaera batekin lotzen dutenak. 1284. urte inguruan, ingurunean zenbait herrik sagu-izurrite izugarria pairatu zuten, eta horixe izan zen kontakizunaren abiapuntua.

Txirulari misteriotsuaren pertsonaia izurrite-hiltzaileen lanbidearekin lotu izan da. Ogibide hori, Erdi Aroan, behintzat, gizarte-eskalaren oinarrian zegoen, eta garaiko biztanle gehienek mespretxatu egiten zuten. Horregatik, pertsona bakartiak izan ohi ziren, bizileku finkorik edo familiarik gabeak, hara eta hona noraezean lan bila ibiltzen zirenak. Eta, agian, horixe da pertsonaiak ezta izenik ere ez izateko arrazoia.

Ipuien tradizio orok moraleja edo irakaspen etiko bat dakar berekin irakurleentzat edo kontakizuna entzuten zuten entzuleentzat. Txirulariaren istorioaren kasuan, hainbat balio goraiatzeko dira, hala nola emandako hitza betetzea, egindako lanaren truke bidezko ordainsaria jasotzea, edo orduko ezaugarri nabarmen bat, ohore pertsonala, hain zuzen, ez betetzearen ondorio latzak deskribatzen dira, mendekuaren antzezpenaren bidez, nahiz eta bertsioko moderno batzuetan amaiera hori aldatu egiten den.

Luze eta zabal eztabaidatu izan da txirulariaren mendekuzko azken ekintzaren eta horrek izan zezakeen benetako jatorriaren gainean. Naturaz gaindiko elementuak edo musikaren eraginak baztertua, hau da, neurritz gainekoak edo zuzenean fabulatuak, badirudi zantzuen arabera Hamelingo haur guztiak desagertzea Europako eremu horretan garai hartan gertatu ziren gertaera demografiko eta politikoekin lotuta dagoela. Hutsik zeuden lurraldeak jendeztatu nahian, jauntxo feudal batzuek abantaila handiak eskaini zizkieten nekazari zergen ordainketan, baita soldadutza ez egin beharra ere, emigratzearen truke. Eta, segur aski, horixe izan zen txirulari misteriotsuaren pertsonaian oinarritutako kondairaren oinarria.

Benetan gertatu zen ala ez alde batera utzita, gaur egun Hamelin hirian ez da musikarik jotzen "Txirulariaren etxea" izenez ezaguna den ondoko kaletik pasatzean. Bandek jotzeari uzten diote kale horrekiko bidegurutzera iristen direnean, eta, hura zeharkatu eta etxea atzean uzten dutenean, berriz heltzen diote jotzen ari ziren musika-pasarteari. Beharbada, txirularia bueltatzea saihesteko.



Azter dezagun txirula hurbiletik



Jo duzu inoiz txirularik? Ikusi duzu gertutik? Badakizu musikariek nola jotzen duten? Irudikatu txirula hodi bat bezala, airea hortik pasatzen da eta, hodiko zuloekin zer egiten dugun, itxi ala ireki, soinua aldatu egiten da. Zenbat eta zulo gehiago itxi, orduan eta baxuagoa soinua. Zuloak estaltzen ez baditugu, aldiz, soinua altuagoak dira. Txirulek hiru atal dituzte:



burua, txirulariak bertatik sartzen du airea putz eginez



gorputza, non txirulatik aterako den soinua egokitzen den



★ eta oina, soinua ateratzen duen zatia



Txirula-mota asko daude. Hona hemen zenbait.

★ Egizu klik ➡ [Txirula ezta edo moko-txirula](#)

★ Egizu klik ➡ [Zeharkako txirula](#)

★ Egizu klik ➡ [Piccoloa](#)

★ Egizu klik ➡ [Panen txirula](#)

★ Egizu klik ➡ [Txistua](#)

★ Egizu klik ➡ [Pistoi-txirula](#)





Txirula, bere eraikuntzaren sinpletasunagatik eta jotzeko teknikagatik, ezagutzen diren musika-tresna primitiboenetakoa da, beharbada. Nahiz eta material ugari erabili izan diren sortzeko (hezurra, egurra, bolia, kristala edo, garai modernoagoan, metala eta plastikoa), tradizionalki egurrarekin eta metalarekin lotzen da.

Eraikitzeko orduan airea dardarazten duen hodia artifizialki laburtzeko eta luzatzeko printzipioari jarraitzen zaio, soinu altuagoak edo baxuagoak sortzeko zuloak estaliz edo desestaliz, hurrenez hurren (prozedura hori, denborarekin, giltzen bidez perfektionatu zen, zeharkako txirulan, kasu).

Historian izandako bilakaerak doinu konplikatuak sortzea ahalbidetzen die, baita erregistro-tarte zabala jotzea ere, beren fisionomia luzatuz eta zabalduz. Instrumentu honetan, tinbrea nabarmentzen da, beste tresna batzuetan baino errazago antzematen dena, zehatza eta sarkorra maiztasun altuetan, baina leunagoa eta ez hain presentea tesitura baxuagoetan.

Tipologia ugari badago ere, mota adierazgarrienak edo hainbat arrazoiengatik hedatuena, behintzat, aukeratu ditugu:

- ★ Moko-txirula edo txirula «eztia», agian ezagunena, normalean egurrezkoa eta gorputzean zehar zuloduna.
- ★ Zeharkako txirula, metalezkoa, giltzak dituena eta horizontalki jotzen dena.
- ★ «Piccoloa», zeharkako txirula oso txikia eta, hori dela eta, nota oso altuak sortzen dituena. Tradizioz, orkestrak txorien soinua imitatzeke erabiltzen zen.
- ★ Panen txirula, hainbat hodi finkok osatzen dutena; horietako bakoitzak nota jakin bat jotzen du.
- ★ Txistua, Euskal Herriko txirula tradizionala, esku bakarraz jotzen duena; perkusioz lagundu ohi da, txistulariak berak eramaten duen danbolin batek sortua. Txirula honen tinbrea oso sarkorra da, eta urrutitik entzuteko diseinatuta dago bereziki.
- ★ Pistoi-txirula, barruan daraman pistoia eskuaz bultzatuz bere hodia luzatuta edo laburtuta noten altuera aldatzen duena.





Ezagut itzazu gainerako pertsonaiak



Txirularia Hamelin herriko Udaleko Kontseiluko kideek deituko dute. Egon zara sekula zure herri edo hiriko udaletxean? Udala [foto] herri bateko gauzak behar bezala funtzionatzeaz arduratzen den erakundea da: ura, argiak, lorategiak, garraio publikoa... Bertako langileak alkatearen agindupean daude, eta hari zinegotziek laguntzen diote, lanaren zati batzuk beren gain hartuta.

Gure istorioan, emakumezko alkate bat da Hamelingo agintaria, eta hari Lucín, Jonás eta Bartabás zinegotziek laguntzen diote. Operan, hainbat abeslarik batera abesten dituzten pasarteak kantari-kopuruaren arabera izendatzen dira. Kasu honetan, Lucínek, Jonásek eta Bartabásek, hiru direnez, «Tertzeto» bat abesten dute. Eta, alkate andreak aginduta, txirulariari herria saguetatik salbatzeko eskatuko diote. Entzun ditzagun!



Egizu klik  [«Di que sí» Tertzetoa](#)





Saguak kantuan!



Saguez hainbeste hitz egin... eta oraindik ez ditugu entzun! Saguak animalia honen soinu bereizgarriak erreproduzitzen dituen kantu bat abestuz heltzen dira Hamelinera (onomatopeiak). Badakizu saguek nola egiten duten? Jakiteko, entzun Sagu Nagusiaren abestia.



Egizu klik



[Sagu Nagusiaren abestia](#)



Bukatzeko, hemen dituzu beste jarduera batzuk etxean lasai asko egiteko eta antzokira zatozenerako txirulariaren mundua pixka bat hobeto ezagutzeko. Txirula-musika entzunez egin ditzakezu!

IZKI-ZOPA

Saiatu aurkitzen Namelineko Txirulariaren pertsonaien izenak.

Txirularia

Jonas


Lucin

Bartabas

Alkatea

Arratoiak

A	L	K	A	T	E	A	K	B	L
H	U	K	I	R	S	I	Z	T	E
E	C	A	G	A	N	R	O	P	G
F	I	I	N	I	E	A	Z	R	E
M	N	O	O	A	G	L	O	F	X
S	J	T	R	J	O	U	D	N	H
E	S	A	B	A	T	R	A	B	F
T	I	R	O	T	N	I	B	M	R
I	L	R	P	X	F	X	A	Z	L
R	B	A	D	A	E	T	K	G	K



MARGOTU


Margotu Hamelin herria



LABIRINTOA



*Lagunduko diezu umeei
Hamelinerako bidea aurkitzen?*



ONOMATOPEIAK




Ba al zenekien animalien onomatopeiak aldatzen direla, hinkutzaren arabera? Aurkitu eta lotu itzazu animaliak egiten dituzten soinuekin.

Animalia	Gaztelaniaz	Euskeraz	Ingelesez
Behia	Mu	Txio-txio	Meow
Txerria	Oink	Kukurruku	Tweet
Katua	Miau	Kro-kro	Moo
Erlea	Bzz	Zi-zi	Woof
Txakurra	Guau	Brun-brun	Hiss
Txoria	Pío-pío	Mau	Quack
Igela	Croac	Zaunk-zaunk	Cok-a-doodle-doo
Oilarra	Kikirikí	Marru-marru	Buzz
Sugea	Ssssh	Kurrin-kurrin	Oink

TXIRULAREN ZATIAK


*Bi motako txirulak nahasturik daude hemen.
Lotu itzazu izkiak eta ebaki zatiak txirulak
berreraikitzeko.*



A




D



F



B



E



G



ZURE ZAIN EGONGO GARA ANTZOKIAN!



<p><u>I. Casali</u> El flautista de Hamelin</p>  <p>Urriak/Octubre '23 14, 15, 16</p>	<p><u>X. Montsalvatge</u> El gato con botas</p>  <p>Urtarrilak/Enero '24 3, 4, 5</p>
--	--

Arriaga Antzokisk eta ABAO Bilbao Operak elkarlanean antolatuta /
Una colaboración del Teatro Arriaga y ABAO Bilbao Opera

2023/2024

**19 ABAO TXIKI DENBORALDIA
TEMPORADA DE ABAO TXIKI**

<p><u>J. Cornudella</u> Andersen, El patito feo</p>  <p>Martxoak/Marzo '24 2, 3, 4</p>	<p><u>P. Hindemith</u> Hirira</p>  <p>Maiatzak/Mayo '24 11, 12, 13</p>
--	---

